

OTSOA ETA AZERIYA

Otsoa miñez gaizki
 gertatutzen zala,
 zulotikan kanpora
 irteten etzala,
 azeriyak, nola zan
 jakiñikan ura,
 egun batez zitzaion
 juan bere zulora;
 eta otsoak bere
 oñaze ta guzi,
 zuben denboran lagun
 ura an ikusi,
 esan zion:—jai lagun
 lagun, niok gaizki!
 eta ez niok iñork
 sendatuko noski;
 illabete bat badek
 nabillela miñez,
 dauzkaten oñazeak
 aplaka eziñez;
 eta gertoi ontatik
 libratu nadien,
 edo oñaze pean
 lertu ez nadien,
 erregutu egiok
 gure jainkoari,
 miñ gogor oek kendu

deizkidala neri.
 —Ez ditek balioko
 nere errezoak,
 esan zion azeri
 kaskar tranposoak;
 ire denboran aiz i
 gaitz asko egiña,
 eta kulpak gaitikan
 dek daukakan miña;
 maiz itukan ardiyak
 ik ito ta jaten,
 eta chekor ondoren
 ere itzan joaten.
 —Ala dek, esan zion
 itz ari otsoak,
 bañan neretzat ayek
 baziran gozoak,
 olloak ez baitituk
 iretzako miñak,
 non ederki dakikan
 dantzaten agiñak;
 nere gaien berean
 arkitutzen aiz i,
 emen gaizto berdiñak
 gertatzen gaituk bi.
 —Bai bañan, esan zion
 i ezaiz erori

kontura, gai iguala
 ez baitala ori;
 ni gaztea izanik
 i zarra aizela,
 eta ni zartzerako
 onduko naizela;
 orain baliaturik
 aldedan guziya,
 pikardiz olloari
 kendubaz biziya,
 miñez jarri baño len
 onduko nauk oso,
 eta ezniok gaitzak
 atzituko preso;
 eta itz au esatez
 bat, gogorki miñak
 eldurik, otsoaren
 miñ klase samiñak;
 asi zan marruaka
 erreguk egiñaz,
 kupizedilla goya
 ark zekarren miñaz
 eta non laguntza bat
 zitzaion sortuko,

eta gozotasunez
 bat zuben artuko,
 bertan sortu zitzaion
 zezen bat aundiya,
 adar bakoitza kana
 bat zubena iya,
 eta non oñazeak
 zizkan aterako,
 eta otsoa ere
 zuben sendatuko,
 lenaz charrak izandu
 ziraren pistiyak
 adarkazo banetan
 il zituben biyak.

.

Kontu oni begira
 zerbait jar gaitezen,
 azeriyaren gisan
 arki ezgaitezen;
 gerorako ez utzi
 ondutzeko lanak,
 gerora irichiko
 ezgera ta denak.

RAMÓN ARTOLA.

